

Aingern Epaltza

Batasunaren kontra

Behari politiko gehienek haren kontra egin zuten trabes. Inkesta guti batzuetan baizik ez zen ageri, eta halakoetan dudak. Haren jarraitzaileak uzkuertza emanak ziren kontrario zuzenak: “Alferrik ari zarete. Boza zaborrontzira bota nahi ez baduzue, eman gure alde”.

Bati baino gehiagori tonto aurpegia jarri zitzaion azaroaren 20ko gauean. Aho bete hortz gelditu dira orgaren gurpiletan ziriak sartzen ibili direnak. Baten batek muturreko galanta hartu zuen, Geroa Baik diputatua erdietsia zuela ikusita.

Ez zebilen haize alde. Nafarroa Bairen herentzia bereganaturik egin du kanpaina, baina etorkiko koalizioa lau alderdiarik bat baizik ez zen gelditzen –EAJ–, ez preseski handiena. Independentek ere baziren, Zabaltzen taldearen inguruan bilduak, edo Atarrabiakoak, udalerrri mailakoak. Haien ekarpena, haatik, hutsaren hurrengotzat hartzen zuten NaBaitik ihes egin-dako alderdiek. Hain zuzen ere, jeltzaleen marka nafar gisa aurkeztu nahi izan dute trepetari berriaren kontra jo dutenek. Ezker abertzaleko ziber iritzi-emaile brigadak 20.000 boto iragartzen zizkion gehienez.

Halako bi baino pixka bat gehiago atera ditu Geroa Baik: 42.000. Amaiurrek, berriz, 7.000 gehiago. Urruti, zaleen sarean iragartzen zioten kopururik, “gutxienez 70.000”. Maiatzeko hauteskundeetan Bilduri alde handiagoz nagusitu zitzaion Nafarroa Bai. Orduan abertzaleen arteko “berdinketa teknikoaz” mintzatu ziren batzuk.

NaBairen bertsio mehatuak funtzionatu du. Are gehiago, erran liteke on egin diola mehatzeak. EAren iheskeria gabe, Aralarren nagusikeria gabe eta bi horien arteko liskar etengabea gabe elkarrekin hobeki moldatu dira koalizioaren bi adarrak, diskurtso sinesgarriagoa eraiki dute eta eragin-korragoak gertatu dira kanpainen. Kalterako iduri zuenak on egin dio, hondarrean.



DANI BLANCO

Bertze faktore batzuk ere ezin ahanzi. Lehen-lehenik *Noticias* taldearen sostengua. Nafarroako bigarren egunkariak ez dio beldurrik izan bere irakurle batzuen fideltasuna kolokan jartzeari, Geroa Bairen alde aski agerian agertuta. Zerrendaburuaren nortasuna laguntza mediatikoa bezain erabakigarria izan da, bertzelde. Dударik ez, arras bertzelako emaitzak eskuratuko zituen Uxue Barkos gabeko zerrenda batek. Jende anitzek “Uxueri” eman dio botoa, ez Geroa Bairen. Gauza handia da hori, baina zalantzak pizten ditu Geroa Bairen geroaz. Kazetari iruindarra ez da beti izanen, zerrenda guztietan buru izateko.

Horretan, eta bertze gauza aintzetan, badu lana hiru hilabete baizik ez dituen proiektu honek. Momentuz, eta zenbait uste ez bezala, mito bat hautsi du Geroa Baik: batasunaren premiarena.

Elkarlana, elkar hartzea, konplizitatea... Guztia beharko da etorkizunean. Ez batasuna. Postmonzonismo guztiaren kontra, eskaintza euskaltzale bat baino gehiago izatearen abantaila erakutsi dute Nafarroako emaitzek. Zerrenda bakar batek –berezik, Amaiurren gisara, ezker abertzaleak hegemonizatutako zerrenda bakar batek– ez zituzkeen inola ere erdietsiko bakoitzak bere aldetik atera dituzten emaitzak. Geroa Bairen botoa eman dioten frankok inoiz ez liokete Amaiurri emanen. Ezta alderantziz ere.

Amaiurrek lan txukuna egin du euskarazko irakaskuntzaren ondorioz Euskal Herrian sinesten duen %30 horren gehien-go berenganatzen. Bertze %70a norbaitek landu beharko du, alabaina, eta horretarako leku hobean dirudi jarreraz eta posizionamendu ideologikoaz Nafarroako estandarretik hurbilago dagoen indar politikoak.

Haztea da herrialde honetan bizi dugun setio egoeratik ateratzeko bide bakarra. ■



Elkarlana, elkar hartzea, konplizitatea...

Guztia beharko da etorkizunean. Ez

batasuna. Postmonzonismo guztiaren

kontra, eskaintza euskaltzale bat baino

gehiago izatearen abantaila erakutsi

dute Nafarroako emaitzek